

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Saneamendu zerbitzuaren tasa ordaindu behar dutenen errolda: onartu, jendaurrean jarri eta kobratzea

Alkatearen abenduaren 21eko 216/2015 Dekretuaren bidez, onartu da saneamendu tasa-ren errolda 2016ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arteko aldirako. Hortaz, jendaurrean jartzen da, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, 15 egun balioduneko epean, aztertu ahal izan dadin eta, hala badagokio, egoki jotzen diren oharrak eta erreklamazioak aurkeztu ahal izan daitezten.

Interesa dutenek espedientea Kanpezuko udaletxean aztertu ahal izango dute, astelehenetik ostiralera, 09: 00etatik 14: 00etara arte.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 98. artikulua 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera; dena dela, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak Kanpezuko Udaleko lehendakariari aurkeztuko zaizkio, gorago adierazitako epeetan.

Tasa horri dagokion errolda ordaintzeko moduan jarrita egongo da, borondatezko epean, 2016ko maiatzaren 1etik ekainaren 30era arte (biak barne), egun baliodunetan. Helbideratutako ordainagiriak hainbanatu eta hilaren 1a eta 5a bitartean igorriko dira.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukatenean edozein banku bulegotan ordaindu ahal izango dute, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du udalak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Kanpezuko Udalak zuzenean kudeatuko du kargua ordainketa helbideratu den banku kontuan.

Borondatezko epean ordainketarik egin ez bada, premiamendu bideari hasiera emango zaio eta kobratu beharrekoari dagokion errekurtsoa aplikatuko zaio, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 28. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Kanpezu, 2015eko abenduaren 21a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO